

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko maiatzaren 5a. VIII. urtea. 2.220. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



IGARCIA

→ Eskolako haurrek estreinatu dute udaletxe berria.

Ikaztegiako udal ordezkariak eta langileek itxaron egin beharko dute eraikin berrira joan aurretik, udaletxe berria ez baita prest egongo legealdi hau amaitu baino lehen; eskolako obrak direla medio, ordea, ikasle talde bat bertan ari da klaseak hartzen. ◊7



Jose Mari Vieites
Tolosako EBren alkategaia

«Tolosan EAJk, PSE-EEren babesarekin, ez duen dirua gastatu du»

Ezker Batuaren programan enpleguaren eta gizarte alokairuko etxebizitzien gaiak agertzen dira

Elkarrizketa ◊2

Aska ezazu irudimena zure DISEINATU



ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK DISEINU GRAFIKOAN

Herriz Pasealekua 96 • 20008 Donostia • Gipuzkoa • 943 310 873 • www.ceinpro.es

Mendi Zinemaldiko pelikularik onenak Tolosan egongo dira

Mendi Tour-ek bere ibilbidea Tolosan hasiko du hilaren 10ean; guztira zazpi pelikula ikusteko aukera egongo da Leidorren ◊5



Mendiko kultura gertutik ezagutzeko aukera antolatu dute. I. URKIZU

2011ko
Gipuzkoako
Bertsolari
Txapelketa

G.PUNTUA

abian da lehen fasea!

hitza®



www.gpuntua.com

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →

Jose Mari Vieites ◊
 Ezker Batuko Tolosako alkategaia

Ezker Batuaren hautagaiaren arabera enplegua, gizarte gaiak, herritarren parte hartzea eta zerbitzu publikoen defentsa izango dira beraien programaren ardatzak.

«Atez atekoa proposatu zuen lehen alderdia izan ginen»

Maier Ugatemia Tolosa

Jose Mari Vieites Tolosako Ezker Batuko alkategaia da. Politikari profesionala ez den arren, politikak «kezkatzen» duela eta bizitza guztian zehar «langileriaren eskubideen defentsan» lanean jardun duela dio. Jose Mari Vieitesek etengabe gizarte gaien inguruko interesa azaldu du, eta zerbitzu publikoen garrantzia ere nabarmendu nahi izan du.

Azken lau urte hauen inguruan, zein da zure balantzea?

Aipatzeko da 2007/2011 legealdian Ezker Batuko zinegotzia den Enrique Torquemada egin duen lana. EAJk izan duen oposizio bakarria izan da.

Ezker Batua gizarte zerbitzuen aurrekontuak murriztearen aurka azaldu da. Gizarte zerbitzuetan inolako onurarik izan gabe, zergak igotzearen aurka ere azaldu gara. EAJk, PSE-EEren laguntzarekin, herritarren parte hartzea kontutan hartzen ez duen kudeaketa bat daroma Tolosako Udalean. EB, ahal izan duen neurrian, hau aldatzen saiatu da.

EBk oposizio arduratsu bat burutu du. Gainera, mozioak aurkeztu ditu eta politikoki, sozialki eta kulturalki garrantzi handia duten proposamenak egin ditu: berdintasunaren alde, emakumeen aurkako indarkeriaren kontra, Saharan eta Palestinan autodeterminazioa betetzea eskatuz, Tolosaldea eskualde euskaldun bezala izendatzeko eskatuz, enpresetako kaleratzeetan langileei babesa adieraziz, zerbitzu publikoen aldeko defentsa eginez, gure ambulatorioko espezialitateak pribatizatzearen aurka azalduz eta abar.

Ezker Batuko militanteak eta zaleak oso pozik gaude azken legealdian egindako lanarekin, eta

herritarrek beraien babesa ematen badigute bide horretatik jarraituko dugu.

Zeintzuk dira hurrengo legealdirako aurkeztutako programaren puntu-rik garrantzitsuenak?

Enplegua, gizarte alokairuko etxebizitzak, herritarren parte hartzea, bazterketa sozialaren aurkako politika, zerbitzu publiko guztien kudeaketa eta defentsa dira, besteak beste.

Nola ikusten duzu udaletxeen kudeaketa krisi egoera honetan?

Zenbait udaletako kudeaketa aztoratzeko modukoa da. Horrela izango litzateke beste edozein legealditan ere, baina, larriagoa da

«EAJk ez daukan dirua gastatzen du zubiak egiten edo festak antolatzen»

krisi garai honetan. EAJk eta PSE-EEK milioika euro gastatu nahi dituzte futbol zelaietan, edo beste Guggenheim bat egiten, edo AHT-a eraikitzen. Bitartean familia asko ez dira hilabete bukaerara iristen, eta langileak lanik gabe geratzen ari dira, hauentzat gizarte laguntzak bukatzen ari dira, eta banku eta kutxek kallean uzten dituzte etxebizitzarik gabe eta familiari laguntzeko baliabiderik gabe. Hau ez da demagogia. Triste den errealitatea da, eta honen aurka protesta egin behar da.

Tolosan EAJk, PSE-EEren babesarekin, ez daukan dirua gastatzen du Eroskin edo Belate- Arramelen zubiak egiteko, edota txuletaren, arrautzaren, karakolaren, edota beste edozein gauzen festak antolatzeko. Bitartean enpresak ixten ari dira, eta langabeziak gora egiten du etenik gabe.



HITZA

Udalak zorretan daude, baina, ez herritarrei krisia gainditzen lagundu nahi dietelako. Zorretan daude inork eskatu ez dizkien proiektu erraldoiak burutzegatik.

Tolosaldean AHTren lanak hasi berri dira, eta herritarren protestak izan dira. Zein da zuen jarrera azpiegitura honekiko?

EBk hasi ditu azpiegitura honen aurkako mobilizazioak. Kostu ekonomikoak eta ingurumenean izango duen eraginak beldurtu egiten gaitu. Guk U-a proposatzen dugu, bidaiarientzat nahiz salerosgaiatzat. Gainera, ingurumenean ez luke hain eragin bortitza izango.

Zabor bilketaren inguruko hika mika da nagusi azken hilabeteetan; auzo desberdinak jarri dira mahai gainean: atez ateko bilketa, bosgarren

↓ Gertutik

■ Zer egiten duzu denbora librean duzunean politikagintzatik deskonektatzeko? Politikari profesionala ez naizen arren, herritar bezala, oso zaila egiten zait politikatik deskonektatzea. Baina, denbora librean dudanean ia egunero, goizean goiz, Villabona aldera oinez ibiltzera joatea gustatzen zait. Gainera, bazkal ondoreneko kafearen ostean, musean jolastea ere gustatzen zait.

■ Herritar bezala, ba al duzu konfiantzarik politikoengan? Egia da zenbait politikok, beraien onerako ustelkeria erabili izan dutela, erabiltzen dutela, eta erabiliko dutela. Baina, zorrionez politikari gehienek beraien egitekoak zuzen betetzen dituzte. Beste gauza bat da, gaur egun politikoei gai publikoak zuzen kudeatze ote dituzten ala ez. Gehiengoak duten alderdiak, hau da, PSOE eta PP, multinazionalen eta bankuen eskura daude, eta horek herritarrek politikariengan eta politikan duten konfiantza eta interesa galtzea dakar.

edukiontzia materia organikoa bil-tzeko, Zubietako erraustegiaren gaia ere hor dago... zein iritzi duzu honen inguruan?

EB izan zen atez ateko bilketa proposatu zuen lehen alderdi politikoa. Europako zenbait herrialde-tara eta Kataluniara egindako zenbait bisitaren ondorioz, erraustegiaren aurkako gure jarrera berretsi genuen. Erraustegiak ez dira irtenbide egokiak. Daukan kostuaz gain eta osasunarentzat ere arriskutsua izateaz gain, zaborra areagotu egiten du.

ETAren azken agiririk eta gero, aro berri bat ireki da Euskal Herrian; Nola ikusten duzuzuk aro berri hau? Euskaldunen zati handi batek indarkeria ez du Euskal Herriaren eskubideak lortzeko konponbide bezala ikusten. Beraz, ETAr indarkeriaren bidea uztea besterik ez zaio geratzen. Historikoki ekin-tza terroristen aurrean isilik geratzen zen ezker abertzalearen

«Bilduk maiatzaren 22ko hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea du»

zati handi batek bere desadostasuna adierazi du ekin-tza bortitzen aurrean. Eta, beraien eskara politikoko bake bidetik eta demokratikoki aldarrikatzen dituzte. EB prest dago ezker abertzale berri honekin lan egiteko, Euskal Herri demokratikoago baten alde. Berdintasun gehiago eta giza-eskubide gehiago izango dituen Euskal Herri baten alde, non aukera politikoko guztiak, besteen baldintza berdinetan, defenditze-ko aukera izango duten.

Pasa den astean Aralar eta Ezker Batua Bildurekin elkartu zineten. Zer ondorio atera zenituzten?

Eduki handirik gabeko bilera izan zen. Ziur ez baginen ere, Auzitegi Gorenak fiskaltzaren eta estatuko abokatuen inpu-gnazio eskaerak kontutan hartuko ez zituenaren esperantza genuen. Epaia-zen zain ginen bitartean, erantzun politikoko eta sozialak epaitegien erabakiaren arabera-

koak izango zirela erabaki genuen. Gauzak honela, alderdi politikoko guztiak hauteskundeetan parte hartzerik izango ez balute, gizartea mobilizatu egingo litzateke.

Igandean Espainiako Auzitegi Gorenak balio gabetu egin zituen Bilduren koalizioak maiatzaren 22ko udal hauteskundeetarako. Zer iritzi duzu?

Adituek (baita Auzitegi Gorenekoek ere) sententzia hau astakeria juridiko bat dela diote; zuzenbide estatutaren desegitea da. Bortere ezberdinen arteko banaketa ezak, eguneko estatu espainiarren kalitate demokratikoa urria dela adierazten du. Hau bi arrazoi nagusik bultzatuta hartutako erabaki politikoa da: eskuin muturrekoek presioa eginez estutu dutelako, eta PSOEek PPK Euskadin emandako babesa nolabait ordaindu behar zuelako. Tolosako EBk bat egingo du Bilduren eskubide zibil eta politikoen alde egiten diren mobilizazio guztiak. Maiatzaren 22ko hauteskundeetan gainerako alderdi politikoko guztiak batera parte hartzeko eskubidea baitu.

Publikoak ez garen euskarazko hedabideok orain gutxi sektoreko egoeraren inguruko azterketa bat burutu dugu. Horren harira gizarteko hainbat eragileri eskaera zehatzak egiten ari gara; funtsean, instituzioekin batera mahai bat osatzeko proposamena egin dugu neurri zehatzak planteatu ahal izateko, eta 2012rako diru laguntzak emandatzeko (diru laguntzak igoz eta inbertsioak sustatzeko laguntzak bidertuz). Zein iritzi duzu?

2003/2009ko legealdian euskarazko komunikabideen aldeko proposamenak babesteko aukera izan nuen. Gauza bera egingo dut 2011/2015eko legealdian tolosarrekin beraien babesa ematen badi-date. Ez dakit komunikabide hauek erakundeekin egin dituzten bilertan zeri buruz hitz egin duten, baina benetan diotsuet Tolosako EBk beti izan duen jarrera mantenduko duela, hau da, komunikabide euskaldunei babesa eta sostengua emango diela.

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →**Irudia** ◊ Tolosaldea eta Leitzaldea**ILEGALIZAZIOA SALATZEKO ELKARRETARATZEAK**

Igandean Espainiako Auzitegi Gorenak Bilduren zerrendak baliogabetzea erabaki zuen. Hori dela eta, astearte iluntzean Bilduk hainbat elkarretaratze egin zituen Tolosaldean eta Leitzaldean epaia salatzeke; *Eskubide guztien alde, ilegalizaziorik ez!* lemapean.

Irudietan herri hauetako elkarretaratzeak ikus daitezke: Ibarra, Anoeta, Villabona eta Tolosan. Ibarra 130 lagun elkartu ziren, Anoetan 50, Villabonan 100, Tolosan 200, Adunan 20, Ametzetan 70, Berrobin 18, Leaburun 16, Gaztelun 18, Zizurkilen 77, Ikaztegiatan 13,

Alegian 120, Altzon 40, Lizartzan 40. Bilduk atzo aurkeztu zuen helegitea Auzitegi Konstituzionalean. Honek, gaur emango du epaia. Gainera, gaur Bilbon manifestazio nazionala egingo dute hauteskunde demokratikoak eskatzeko. ASIERIMAZ/ITZEA URKIZU/HITZA

Irudia ◊ Villbona**SANCHEZ ALKATEGAI**

Villabonako Ezker Batua-Berdeak alderdiaren alkategaia Maria Jose Sanchez da. Sanchezek Ezker Batua-Berdeak alderdia «euskal ezkerreko aukera federalista bakarra» dela argitu du, eta baita lana eta giza eskubideak defendatuko dituela ere. Era berean, «herriarren ongizate maila hobetzeko» lan egingo duela esan du. HITZA

Irudia ◊ Anoeta eta Tolosa**PSEE-EE ALDERDIAREN HAUTAGAIK**

PSEE-EE alderdia ere ari da, pixkanaka-pixkanaka, bere hautagaiak aurkezten. Anoetako alkategaia (lehen irudian) Iñaki Achucarro izango da. Beste irudian, aldiz, Tolosako hautagaiak ikusi daitezke. Alkategaia Jose Ignacio Asensio izango

da (ezkerretik hasita lehena), eta beste hiruak zerrendako bigarrena, hirugarrena eta laugarrena dira; hau da, Oscar Renedo (irudiaren erdian), Xabier Maiza (elastiko berdearekin) eta Avelina Sanchez. HITZA/L.GARCIA

Azken hiru alkate ohiek ez dute gustuko epaitegiak eskaintzen duen irudia

‘Banderen gerra’ Tolosan sortu zela azaldu dute 80. hamarkadako hautetsiek

Asier Imaz Tolosa

Tolosan Espainiako banderak bere historia dauka. 1981. urtean banderen legea onartu baldin bazuten Madrilen, ondorengo urteetan Hego Euskal Herrira zabaldu zen *Banderen gerra* Tolosan piztu zen.

Egun, duela 30 urteko legea aitziakiatzat edo arrazoiztat hartuta, Eusko Jaurlaritzak lau bandera jarri ditu Tolosako epaitegiaren sabaian: Europakoa, Espainiakoa, ikurrina eta Gipuzkoakoa. Jakina da Espainiakoa eztabaida piztu ohi duela euskal gizartean, eta **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkariak Tolosako azken hiru alkate ohiekin hitz egin nahi izan du.

Mirentxu Etxeberriari (EAJ), Jose Gurrutxagari (EA) eta Antton Izagirri (Batasuna) ez zaie argazki polita iruditzen epaitegiaren kanpoaldean aurkitu dutena. Hala eta guztiz ere, legez hori egin dezaketela onartu dute hirurek.

Hiru alkate ohien erreakzioak
Mirentxu Etxeberriak alkatetzat 1983an hartu zuen, eta legealdi bakarra egon zen udalaren buru. Epaitegian jarri duten Espainiako bandera kalean zebilela ikusi zuen: «Semeak esan zidan eta atentzioa deitu zigun. Zer iruditzen zaidan? Oso gaizki dagoela,

horren haurrean zer egin daitekeen edo zer ez, ongi asko daki *Banderen gerra* gertutik bizi izan zuen alkateak: «Legez ezinda ezer egin. Protesta egitea ez zait gaizki iruditzen; guk ez dugu nahi, ez gaudelako Espainian, baina eurentzat epaitegia euren territorioan dago».

Jose Gurrutxagak hiru legealdi pasa ditu Tolosako alkate bezala, 1987tik 1999ra. Espainiako bandera, eraikinaren kanpoan, Guardia Zibilarren kuartelean bakarrik ikusi duela onartzen du. Eusko Jaurlaritzak hartu duen erabakia gauzak nahastera datorrela uste du: «Zer eta momentu honetan gainera; horrenbeste eztabaida ditugunean mahaiaren gainean. Momentu honetan hori jartzeko probakazioa beste ezer ez dela iruditzen zait. Jendea bata bestearen aurka jartzeko besterik ez du balio. Gauzak ondo zeudela uste dut, jendea amorrazteko besterik ez dute balio horrelako gauzak. Beraiek hori espainiarra dela eta Espainian gaudela esango dute, eta puntu. Horren aurka ezin da gauza handiegirik egin».

Antton Izagirrek alkatetzat 1999an hartu zuen, 2003an uzteko. Gurrutxagak bezala, egungo egoran txertatu nahi izan du Eusko Jaurlaritzak hartu eta aurrera eraman duen erabakia. Izagirren ustez territoria markatzeko egin dute: «Espainiako estatua nahiko larri aurkitzen dela iruditzen zait. Hainbat ekimenekin independentistok aurrerapausoak eman ditugu, eta gero eta gehiago garelako nabarmen gelditzen ari da. Gaur egungo estatus eta estatutu hau agortuta dagoela bistakoa

da, indar politiko eta sozial gehienek aldeketa nahi dutelako. Horren aurrean, beste askotan egin duten bezala, lerrokatu eta euren ixten dira espainiarrak; territoria markatzen saiatzen dira. Kasu honetan, territoria markatzeko bandera hori jarri dute, hain zuzen ere, garbi geratu da din beraiek direla agintzen dutenak».

Izagirrek guzti honen atzean «indar erakusketa moduko bat» ikusten du: «Eurek badakite gehiengo soziala ez dagoela bat eurek defendatzen duten Espainiaren batasun horrekin. Euskal Herrian eta Katalunian erabaki berriak hartu beharrean izango direla ikusten dute, bestela herri horietako jendeak bere kabuz hartuko baititu erabaki horiek. Beldurrak eragindako erabaki bat dela esango nuke».

Eusko Jaurlaritzaren erabakiaren aurrean zer egin daitekeen galdetuta, Batasunako alkate ohiak bat egiten du aurrekoekin, juridikoki ezer ezin dela egin esaterakoan: «Beti esan dugun bezala, epaitegiak espainiarrak dira, eta Espainiaren legeak babesteko daude. Orain hori nabarmenago uzteko bandera jarri dute. Erantzuteko, beti egin dugun bezala, herri borondatea erakutsi genezake. Sektore politiko eta sozial guztiek, elkarrekin, bat ez gatzozela adierazi genezake. Baina ez puntualki, kasu honetan izango litzatekeen bezala, jarraipena izango duen ekimen antolatua eta estrukturala bultzatu beharko litzateke. Gertaera honi berriz, ez nioke daukana baino garrantzi handiagorik emango».



Tolosako udaletxean hasi zen 'Banderen gerra'. A. IMAZ

‘Banderen gerra’

1981eko legearen arabera, udal-lexe bakoian, ikurrinaren ondoan Espainiako banderak joan behar du. Azken hau ez zintzilikatzeagatik, 80. hamarkadan, Tolosako udaletxean ez zuten ikurrinik jartzen. Herri Batasunako zinegotziak ordea, San Joan jaietan ikurrina zintzilikatzen saiatzen ziren. Alde batetik, mozioen bidez, eta hauek aurrera ateratzen ez baziren, euren kabuz udaletxera sartuta. Mirentxu Etxeberria alkate zegoen legealdian, Guardia Zibila sartu zen sanjoanetan udaletxera, ikurrina kentzera. Honen lekuan, Espainiako bandera jarri zuten. Eta ez hori bakarrik, gaur bertan igaro zuten euren bandera zaintzen.

Honek ordea, gauza guztiek bezala, bere ondorioa ekarri zuen: Herri Batasunako zinegotziak udalean mozio bat aurkeztu zu-

ten. Espainiako gobernuak banderen legea onartu zuenean, udal-lexe guztietara Espainiako bandera bat bidali zuen. Mozio honek bandera hori bueltan Espainiara bidaltzeko eskatzen zuen. Hori bai, «edukazioz». Orduko HBko zinegotziak honela gogoratzen dute: «Tolosarrok bandera hori ez genuenez maite, errespetu guztiz, gehiago maite zuten leku batera bidaltzea eskatzen genuen mozioan, hau da, Espainiako Barne Ministeriora».

Mozioa aurrera atera zen, EAJ-ren abstentzioarekin eta HBren aldeko botoekin. Erabakiak izugarriko oihartzuna izan zuen eta *Banderen gerra* alde guztietara zabaldu zen. Hori bai, Espainiatik 6 urteko espetxe zigorra eskatu zuten aldeko botoa eman zuen zinegotzi bakoitzarentzat. Hala eta guztiz ere, bete ez zen zigor eskara izan zen.



saridunak

HITZAK harpidedunentzat **sarrera parea** du

• Alkizako eskola

LAGUN ARO GBC
Cai Zaragoza
saskibalo partida

Maiatzak 5 • Osteguna
20:00etan
Donostiako Ilunben



sarrerak eskuratzeko HITZAKo bulegotik pasa

harpidedunak
TXOKOA hitza

HITZAK harpidedunentzat **sarrera parea** du

• Josune Agirrezabala (Tolosa)

Benito Lertxundi

Maiatzak 6 • Ostirala
22:00etan
Tolosako Leidorren



sarrerak leihatilan bertan izango dituzue



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **sarrera parea** du

• Edurne Zabala (Tolosa)

Ruper Ordorika

Maiatzak 7 • Larunbata
22:30ean
Villabonako
Olaederra kiroldegian



sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

Eskolako Agenda 21**ESKOLAKO AGENDA 21EN BARRUAN EGINDAKO LANA AURKEZTU DUTE**

Eskolako Agenda 21 ekimenaren baitan, elikadura izan dute aurten, ikastetxeetako ikasleek landu beharrekoa. Tolosan nahiz Villabonan, atzo goizean aurkeztu zituzten adin guztietako ikasleek, euren ikerbideak nahiz proposamenak, eta udal ordezkariak idatziz erantzutea eskatu zuten. Besteak beste, elikadura orekatua zer den ikasi zuten, baserriarrei elkarrizketak egin zizkieten, baserriak ekosisteman duen garran-

tziazen inguruan gogoeta egin zuten, saltoki handiak edo bertako produktuekin osatutako azokak alderatu zituzten, transgenikoek ingurumenari eta gure osasunari sortzen dizkieten eraginak aipatu zituzten, eta baserrian emakumeak duen papera aztertu zuten. Honen guztiaren ondoren, Udal ordezkariak emango dieten erantzunaren zain geratu ziren ikasleak. LURKIZUA/IMAZ



Alberto Gonzalez, Jokin Bildarratz eta Javi Baraiazarra, prentsaurrekoan. ITZEA URKIZU

Mendiko kultura zinearen bidez ezagutzeko aukera izango da Leidor aretoan

Gasteizko Mendi Zinemaldiko pelikularik onenak proiektatuko dituzte Mendi Tour-en

Itzea Urkizu Tolosa

Mendiko kultura Europan sortu zen kontzeptua da; mendiarekin lotutako gaiekiko kezka du komunitate honek, eta mendian eragile gisa aritzen dira. Besteak beste, zinea ere mendiko kultura horren barruan sartzen da, eta datorren maiatzaren 10 eta 11n, Tolosako Leidor aretoan ikusgai izango dira lan horietako batzuk.

Jokin Bildarratz alkatea, eta Gasteizko Mendi zinemaldiko Javi Baraiazarra zuzendaria bat datoz, «Tolosak mendiarekin betidanik izan duen harreman estua» aipatzerakoan. «Mendizale-tasun horren erakusgarri dira, izen handiez gain, herriko hiru menditako taldeak: Aralarko adiskideak, Oargi eta Alpino», dio Bildarratzek.

Hori dela eta, bi aldeei egokia iruditu zitzaizkien Gasteizko Mendi Zinemaldiko pelikularik onenak eskainiko dituen Mendi Tour-a Tolosan hastea.

Bide beretik, Bildarratzek eskerak eman nahi izan dizkie bai antolazailleei, bai babesleei, eta «ohore bat» dela nabarmendu du;

Gipuzkoa osoan, Tolosan soilik ikusi ahal izango dira mendiaurreko proiektuak erakusten dituzten pelikula hauek.

Egitarauari dagokionez, guztira zazpi film proiektatuko dituzte. Asteartean, 19:00etatik aurrera, *The asgard project*, *Entre nos* eta *Le monde gaston rebuffat* pelikularik izango dira ikusgai. Asteazkenean, berriz, ordu berean, Gasteizko zinemaldiko pelikularik onenaren saria jaso zuen *The pinnacle*, *Uruca* animaziozko laburmetraia, *Bi gailur hamaika istorio bidean*, eta *Play gravity 2: the other side* izango dira ikusgai. Egun bakoitzeko sarrerak 5 euroko prezioa izango du.

• tolosa@hitza.info

Felix Rodriguez de la Fuenteren lana gogoratuko dute gaur Naturaldian

Hitzaldiaz gain, 'El hombre y la tierra' pelikula ere ikusi ahal izango dute 19:30ean Topic-era bertaratuek

I. Urkizu Tolosa

Naturaldia jardunaldien baitan, Felix Rodriguez de la Fuente naturalistari eskainiko diote gaurko hitzaldia eta proiektzioa. *La huella de Félix* deiturapean, eta arratsaldeko 19:30etik aurrera, hitzaldia eta *El hombre y la tierra* pelikula izango dira ikusgai.

2004. urtean sortu zuten Felix Rodriguez de la Fuente fundazioa, haren senitartekoei. Helburua naturalistaren bizitza, lana eta ondarea gordetzea eta ezagutaraztea izan zen. Hain zuzen ere, fundazioko zuzendaria den Odile Rodriguez de la Fuente izango da, Jordi Sargatalekin batera, hizlarietako bat, Topic-en.

→ Laburrak**Jai batzordearen bilera izango da gaur**

TOLOSA Gaur, arratsaldeko 19:00etan, Sanjoan jaiak prestatzeko jai batzordearen bilera izango da. Bilera irekia izango da, Antonio Maria Labaien kultur etxean.

Txapin festaren aurkezpena bihar

TOLOSA Urteroko moduan, herriko gazteek Txapin festa antolatuko dute. Euren helburua festa herriko, euskaldun eta parte-hartzailea antolatzea denez, egitarauaren nondik norakoak eta bestelakoak azaltzeko, aurkezpena egingo dute, bihar, Gko Galleryn, arratsaldeko 19:30ean.

Batxilergo aurrematrikula Orixen

TOLOSA Orixen institutuan, datorren ikasturtean Batxilergo ikasteko aurrematrikula epea hilaren 11ra arte izango da zabalik.



MUNDU ZABALERAKO ZUBIA

ORIXETOLOSA
Bigarren Hezkuntza Institutua
Instituto de Educación Secundaria

Batxilergoak
Zientziak eta Teknologia
Giza eta Gizarte Zientziak

Irakasgaien Eskaintza Zabalena

943 65 13 87
E-mail: 012980aa@hezuntza.net www.orixe.net

Aurrematrikula: Maiatzaren 2tik 11ra

Julio Gisbert madrildarra etorriko da Larraulgo I. Truke Egunera

Gisbertek 11:00etan hitzaldia eskainiko du; ondoren mahai inguruan parte hartzeko aukera izango da

E. Maiz Amasa-Villabona

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak kudeatzen duen Denbora Bankuko partaideek Truke Eguna antolatuko dute. Igandean, hileren 8an, Larraulgo izango da. Aiztondoko I. Truke Egunari hasiera 10:00etan emango diote.

Trukea egiteko partaideen artean, xaboa eta masaje tailerrak izango dira. 11:00etan eta hurrei zuzenduta, ipuin kontalaria izango da plazan, eta ordu berean, 11:00etan hitzaldi garrantzitsua izango da Kultur Etxean. Madriletik Larraulera etorriko da, Julio Gisbert.

'Vivir sin trabajo' liburua

Vivir sin trabajo, liburuaren egilea da Julio Gisbert madrildarra. «Lanik egin gabe duitasunez bizitzeko erremintak daude» dio Julio Gisbertek. Enpleguaren, ekonomia eta alternatiben maisu ospetsua da.

11:00etan eskainiko duen hitzaldiaren ostean, 12:00etan, mahai ingurua egingo dute. Julio Gisbert, Aiztondo Denbora Bankua eta Euskal Herriko beste Denbora bankuetako partaideen esperientziak jorratuko da. Gai honen inguruko interesa duten guztiak gonbidapena luzatu nahi diete Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari. Merkatuari amaiera, 14:00etan emango diote.



Iragarki laburrak

LANA

■ **Sukaldaria Villabonan.** Sukaldaria behar da eguneko menuak, kazuelak eta taberna bateko sukalde arduradun izateko. Euskara jakitea ezinbestekoa izango da, baita antzeko lanetan eskarmentua izatea ere. Bidali curriculum, villabona2011@gmail.com helbidera. Edo informazioa gehiago,

Ollogoiengo udalekuetara joateko izen emateko azken aukera, gaur

Katekesiako eta Malkar Astialdikoak eman dute izena; gaur 18:00etatik 20:00etara gainerako txanda izango da

E. Maiz Amasa-Villabona

Uda ate joka dator, eta Amasa-Villabonan, udalekuen datak jarri dituzte. Bi txandatan banatu dituzte Ollogoiengo udalekuetara joateko taldeak. Alde batetik, LH 5 eta 6 mailakoak izango dira, ekainaren 27tik uztailaren 8ra; eta beste aldetik, DBH1 eta 2 mailakoak, uztailaren 8tik 19ra. Katekesi eta asialdikoek lehen tasuna izango dute, eta gainerakoek gaur izango dute aukera izena emateko, 18:00etatik 20:00etara. Inskripzio orria bete beharko da. Lehen tasuna duten hurrekin, haur kopuruaren gehiengoak gainditzen bada (40 haur) zozketa egingo da.

Sei antzezlan ikusteko aukera Asvineneako kanporaketan

Poltsikoko V. Antzerki Lehiaketako bigarren kanporaketa izango da bihar; gonbidatu berezia Samarkanda izango da

E. Maiz Aduna

Bihar Asvineneako Poltsikoko Antzerki Lehiaketako Bigarren Kanporaketa izango da. Sei antzerki lan izango dira lehen parte hartuko dutenak, eta horietatik bik lortuko dute aurrera pasatzea. 21:45ean zabalduko dituzte ateak ikusleak sartu ahal izateko, eta 22:30ean puntuan itxiko dituzte, bigarren kanporaketari hasiera emateko.

661 36 94 24 telefonora deitu eskura daiteke.

■ **Ileapaindegia.** Esperientziadun pertsona bat behar dugu lanaldi osorako. Interesa duen edonork, bidali dezala curriculum, metxa2@yahoo.es helbidera.

■ **Ileapaindegia.** Tolosako ileapaindegi batek esperientziadun pertsona bat behar du lanera-

Dantzari Txikien Egunarekin batera Loreen Eguna ospatuko dute, igandean

Bigarren urtez jarraian antolatuko dute Dantzari Txikien Eguna. 11:00etan emango zaio hasiera jaiari

Eneritz Maiz Asteasu

Igandean Dantzari Txikien eguna ospatuko dute Asteasun. Udalak bigarren aldiz antolatuko du egun hau, eta 11:00etan emango diote hasiera egunari.

Herriko Dantza Taldeko 45 dantzariekin batera, Larraul, Irura, Tolosa, Ibarra eta Andoingo dantza taldeetako dantzari txikiak izango dira bertan. Guztiak elkartzean, lehenik eta behin haurrentzako egingo dute indarrak hartzeko, eta ondoren kalejiran aterako dira.

12:30ean, Dantza emanaldia egingo dute frontoian, eta bukac-



laz lehen aldiz ospatu zuten. Dantzari guztiak frontoian elkartu ziren. S. GOMEZ

ra Agurra dantzatzuz egingo dute. Jarraian, Asteasun geratzen diren dantzariak, herrian bazkalitzeko aukera izango dute.

Loreak erosteko aukera

Dantzariekin batera, loreak izango dira Asteasun. Lehen aldiz antolatuko du udalak Lore Eguna, eta 11:00etan emango diote lore eta

landareen postuei irekiera. Guztira, sei mintegi etorriko dira, eta sasoiko loreak, landare ekologikoak, kaktusak, bonsaiak, ... izango dira. Erosi edota ikusteko aukera izango da. Postu guztiak herriko plazan jarriko dituzte.

Arratsaldean, 17:30ean, erromeria izango da plazan dantzarako gogoan duenarentzat.

Aste honetako artista gonbidatua, sabel dantza egiten duen Samarkanda izango da.

'Zintzilik' eta 'Txanan Txanan'

Argiak itzali, teloa gora igo eta ikuskizuna hasi zen Asvinenean, pasa den ostiralean. Lehenengo kanporaketa ospatu zen, eta bertan, Edurne Agirrezabala, *Zintzilik* lanarekin, eta Permin Mañifikuen, *Txanan Txanan* sailkatu ziren finalerako bidea egiteko. Antolatzaileek, zorionak eman dizkiete, egin zuten lanagatik.

Bi horiez gain, *La espera de Antia*, Viento en Pomparena; *Garaiaz aldatzen*, Berastegiko antzerki taldearena; *Los esperados*, Banarterena eta *Heriotza nire gain*, Aldraka antzerki taldearena izan ziren taula gainean. Hauek ez zuten zorterik izan, baina antolatzaileek «txalo bero bat» eskaini nahi izan diete, bertan parte hartu zuten antzerki talde guztiei.



Permin Mañifikue, lehen kanporaketa pasa duenatarikoa da. HITZA

Honako hauek izango dira bigarren kanporaketan parte hartuko dutenak: *Bi infinito*, Weisford eta Xakeltonen eskutik; *Itxura faltsua*, Aldatzen laguntzenena izango da; *Gusanito de*

luz, Retamarena; *El Olentzero*, Hernanikoarena izango da; *Eguzkilorre*, Hortzakaren eskutik; *Opera Pánica*, Café en el Pepek aurkeztuko du eta *Triangle* lana, Ipsofactorena izango da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ko. Interesatu duen edonork deitu dezake 625 70 50 59 telefono zenbakira.

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza alokatzeko moduan dago Iruran. 80 metro karratu ditu, bi logela eta garaje txikia aukeran. Interesatuak, 636 53 00 00 telefono zenbakira deitu dezakete.

→ **Laburrak****Mugitu! Eguna antolatu dute ikastetxeetan**

TOLOSA › Abiadura Handiko Trenaren (AHT) auzian desobediencia bultzatu nahian dabilen Mugitu! Mugimenduak *Ikastetxeetan ere AHTri desobeditu!* lelopean Mugitu! Eguna antolatu du gaurko. Ikastordu bateko geldialdia egiteko eta antolatu diren ekintzetan parte hartzeko deia egin du Mugitu!-k. Besteak beste, Mugitu! Mugimenduak Tolosako hiru ikasle talderekin elkarlanean ari da antolaketak egiten.

Jon Magic-en emanaldia bihar, kultur etxean

ALEGIA › Jon Magic mago alegiar gaztearen emanaldia izango da bihar, hilak 6, kultur etxean. Iturri zahar Guraso Elkarrekin antolatzen du saioa. 18:00etan hasiko da eta joan nahi duen guztia dago gonbidatuta.

Aurreko ibilbidea egiten hasi da autobusa

AMEZKETA › Autobus zerbitzua berriro ere aurreko ibilbidea egiten hasi da, kalearen urbanizazio lanak amaitu eta gero. Autobusa behetik goranzko norabidean plazatik pasatzen da, bai herritarrek autobusa hartzeko eta Tolosatik doazena jaisteko. Eskolako zerbitzuari dagokionez, autobusak aurreko ohiko lekuan hartzen ditu haurrak. Udalak autobusa-ren ibilbidea garbi uzteko eskatu du. «Gaztetxe aurrean ez ibilgailurik aparkatu errepide zatia hartuaz, bihurgune horretan autobusak ezin izango duelako pasa», gaineratu du.

Pala Txapelketa bihar 19:00etan hasiko da

ANOETA › Pala txapelketa hasiko da Anoetan bihar. Partidak ostiralero jokatuko dituzte frontoian, 19:00etatik aurrera. Baina hilaren 20an, 27an eta ekainaren 3an, partidak 20:30ean izango dira. Txapelketako finalak, berriz, herriko festetan jokatuko dira, hau da, ekainaren 26ean.

Kartel lehiaketan parte hartzeko epea, bukatzean

ANOETA › Anoetako festak iragartzeko kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea hilaren 9an, astelehena, amaitzen da. Anoetako Herri Ikastolako ikasleek edo Anoetan erroldatutako pertsonak har dezakete parte. Bi sari egongo dira: Ikastolako-entzat, Kuku-Loren erosteko 40 euroko bono bat jasoko du irabazten duen kartelaren egileak; Ikastolaz kanpokoentzat, 120 euroko saria jasoko du. Pertsona bakoitzak hiru lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez.

Zea Mays taldearen kontzertua, bihar

ANOETA › Anoetako Gaztetxean izango da bihar, Zea Mays talde bizkaitarra. Bere azken lana, *Era* diskoa aurkeztera etorrriko da. Ondoren DJ Bag ariko da gaztetxean.

Asteasu Batuz taldea aurkeztuko dute, bihar

ASTEASU › Asteasu Batuz taldea udal hauteskundeetara aurkeztuko da. Taldea eta bere programa aurkezteko, ekitaldi festa bat egingo dute Asteasu-ko plazan, bihar, 19:00etan. Herritar guztiak bertara gonbidatu dituzte.

Legealdia amaitu baino lehen ez dute udaletxea estreinatu ahal izango

Eskolako obrak direla eta, behe solairuan dagoen balio anitzeko gelan klaseak jasotzen ari da haur talde bat

Imanol Garcia Ikaztegieta

Ikaztegieta udaletxe berria eraikita dago, baina oraindik altxariz hornitzea falta da. Horregatik, legealdia bukatu aurretik ez dute estreinatuko udal ordezkari eta langileak. Izan ere, ekainaren amaierarako espero dituzte altxariak, eta horren ondoren egingo dute udaletxe zaharretik lekualdatzea.

Eraikina estreinatzen lehenak eskolako haurrak izan dira. Eskola berritzen ari dira eta, horregatik, haur talde bat udaletxeko balio anitzeko gelan dago behin behinean klaseak jasotzen.

Udaletxeak hiru solairu ditu. Behe solairuan balio anitzeko gela dago. Lehen solairuan, bilkura aretoa, alkatearen bulegoa eta udaleko langileen bulegoak daude. Bigarren solairuan liburutegia eta KZgunea daude.

Eraikinaren proiektua Astazaldi arkitektura estudioak diseinatu du, eta lanek bost hilabete inguru iraun dute. Eraikina egurrez egin da osorik, eta horrek, besteak beste, hozbero maila hobeto mantentzen du. Eraikinaren aurrekontua milioi bat euro ingurukoa izan da. Foru Aldundiak eta Ikaztegieta Udalak erdibarna ordaindu dute.



Herriko eskola balio anitzeko gela erabiltzen ari da. I. GARCIA



Lehen solairuan bilkura gela dago. I. GARCIA



Bigarren solairuan egongo dira liburutegia eta KZgunea. I. GARCIA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neuniko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Urte askoan Gari!

Zorionak Gari, Lizartzako ezker abertzalearen partetik. Eutsi goiari.



Urte askoan!

Mikel Aranalde Zabaltza.

Gaur 6 urte. Zorionak eta muxu potoloak etxekoan partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. Telefonoa: 943 67 36 49.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde herri plataformaren mahai ingurua gaur, 19:30ean kultur etxeko areto nagusian.
- **Zizurkil.** Lurra, zorua bailitzan liburuaren aurkezpena gaur, 19:30ean Atxulondon.
- **Areso.** Guraso Eskolak haurren heziketaren gaia landuko du gaur, 15:00etan eskolan.

Irudia XIII. HITZA Argazki Lehiaketa



**IRUDI
EDERRAK,
ETXEAN**

Tolosako Arantza Amonarrizek Aste Santuan Pasai Donibane-tik San Pedrora doan txalupa-txoan ateratako argazkia bidali du XIII. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko. «Ikusten dena Pasaiaiko portua da. Ez da urrutira joan behar gauza politak ikusteko», dio Amonarrizek. Gogoratu lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 13a dela, eta thargazkiak@hitza.info helbidera bidali behar direla. ARANTZA AMONARRIZ



Bueltaka?